

## PRENTSA-OHARRA

# Iruñeko D ereduko ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek bertsolaritza-eskolak jasoko dituzte

Tokiko Gobernu Batzarrak Nafarroako Bertsozale Elkarteari esleitu dio 40.000 euroan, programa egiteko kontratua

Nafarroako Bertsozale Elkarteak bertsolaritzaren hastapen eskolak emango ditu Iruñeko D ereduko (euskarazko) ikastetxe publikoetan. 38 eskola izango dira, zortzi ikastetxetan, non Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek bertsolaritzako oinarriko teknikak ezagutu eta ahozko adierazpena landu ahal izango dituzten.

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak gaurko saioan onetsi du 2017/2018 ikasturtean programa hau gauzatzeko laguntza-kontratua esleitzea, 40.000 euroan. Programa 2017ko urritik 2018ko ekainera arte garatuko da honako ikastetxe hauetan: Hegoalde Ikastola IP (lau gela), Amaiur Ikastola IP (lau gela), Mendigoiti IP (hiru gela), Sanduzelai IP (bost gela), San Frantzisko IP (lau gela), Patxi Larrainzar IP (zortzi gela), Bernat Etxepare IP (lau gela) eta Elorri IP (lau gela). Guztira, 494 ikastordu emango dira. Gainera, ikasturtea osatzeko, esleipendun elkarteak 76 ordu gehitzen ditu, guztira 570 eskola-ordu emanez.

Nafarroako Bertsozale Elkarteak irabazi asmorik gabeko kultur elkarte bat da. Iruñeko Udala erakunde honekin elkarlanean aritu izan da sanferminetako programako bertsolarien emanaldiaren antolaketan eta *Bertsoaroa*-ren udazkeneko programazioan, zeinak 2016an 26 urte egin zituen. Gainera, 2000. urtetik aurtengo ekainera arte, Iruñeko Udalaren enkarguz, bertsolaritzaren hastapen eskolak eman izan ditu euskara curriculum-hizkuntza duten hiriko ikastetxe publikoetan.

Programa honen bidez, Iruñeko Udalaren xedea da ahozkotasuna eta hizkuntzaren erabilera ludikoa sustatzea. Bertsoak bat-batean botatzearen jarduerak proposatzen dituen hitz- eta ideia-jolasak hizkuntza modu ludiko batean erabiltzea sustatzen du, eta ikasleen abilezia mentala aktibatu. Bertsolaritza, hortaz, lehen mailako baliabide didaktikoa da testuinguru ez-formaletan hizkuntza erabiltzea bultzatzeko, eta hezkuntza-sistemako curriculum ofizialeko jarduera osagarri bat da. Udal-teknikarien txostenen arabera, ikasleentzako komenigarria dela ikusi da, eta D ereduko ikastetxe publikoetako hezkuntza-ereduan errotuta dago.

1. orrialdea, (e)tik 2




Ayuntamiento de  
**Pamplona**  
Iruñeko Udala

**Área de Gobierno Transparente**  
Comunicación

Gobernu Gardeneko Alorra  
Komunikazioa

Iruñean, 2017ko abuztuaren 23an

[s.comunicacion@pamplona.es](mailto:s.comunicacion@pamplona.es) • [www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)

 948420592

2. orrialdea, (e)tik 2